

**AGINDUA, 2026KO OTSAILAREN 9KOA, TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMOKO SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ HASIERA EMATEN BAITZAI O EUSKADIKO TURISMOAREN LEGE-AURREPROIEKTUA EGITEKO PROZEDURARI.**

Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak, honako funtzio hauek esleitzen dizkio Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailari, besteak beste:

Aurreproiektua egin eta izapidetzeko, Xedapen orokorrak egiteko prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legean jasotako prozedurari heldu behar zaio.

Lege horren 12.1 artikuluan ezartzen denez, “xedapen orokorrak egiteko prozedura xedapen horien gaiaren gainean eskumena duen saileko sailburuaren aginduz hasiko da”. Bestalde, lege horren 13.1 artikulua ezartzen du prozedura hasteko agindu honek zer eskakizun bete behar dituen eta zer eduki jaso behar dituen gutxienez.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak du eskumena gai horretan, Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuan eta Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 11ko 38/2025 Dekretuan esleitutako eskumenen arabera.

Turismoak gaur egun dituen erronkak ez datoz bat indarrean dagoen araudia onartu zen garaikoekin. Azken urteotan, turismoaren sektoreak eraldaketa sakonak izan ditu, gizarte-, teknologia-, ekonomia- eta ingurumen-arloan gertatu diren aldaketen ondorioz, eta aldaketa horiek erabat aldatu dute turismo-jardueraren testuingurua.

Turismo-fluxuen globalizazioa, plataforma digital berrien agerpena, jasangarritasunarekiko sentsibiltate gero eta handiagoa, bisitari-profil berrien agerpena eta turismoak lurraldean dituen inpaktuak kudeatzeko beharra direla-eta, jatorrizko legeak aurreikusten zuenaren guztiz bestelako eszenatoki bat sortu da. Turismo-eszenatoki berriaren erronkei erantzuteko, ikuspegi zabalagoa eta eguneratuagoa behar da. Turismoa jada ezin da ulertu bisitariak erakartzera bideratutako jardura ekonomiko gisa soilik, politika publiko gisa ulertu behar delako, zeinak lagundu behar baitu herritarren ongizatean, kultura- eta natura-ondarearen babesean eta lurraldearen jasangarritasunean.

Gainera, turismoaren inpaktuak direla-eta sortutako gizarte-kezka gero eta handiagoa denez, erregulazio zehatzagoa eta eguneratuagoa behar da, turismo-fluxuak modu orekatuan kudeatu, baliabideak babestu eta bisitarien eta egoiliarren arteko bizikidetzak bermatu ahal izateko. Digitalizazioak, bestalde, zeharo eraldatu du turismoa kontsumitu eta kudeatzeko plangintza egiteko modua; ondorioz, analisi-, erregulazio- eta kontrol-tresna berriak atxiki behar dira, gaur egun indarrean dagoen legean jasota ez daudenak.

Oro har, gogoeta horiek agerian uzten dute beharrezkoa dela indarrean dagoen esparrua ebaluatzea eta erregulazio berri batek integratu beharko lituzkeen hobekuntzak definitzea.

XIII. Legegintzaldiko (2024-2028) Gobernu Programak 105. konpromisoan honela dio: «Euskadi, bikaintasunezko helmuga turistikoa, segurua, jasangarria eta berdintasunarekin konprometitua»; 8. ekimenean, ordea, honela dio: «Estatuko eta nazioarteko araudi berrietara egokituko den Turismoaren Euskal Lege berri bat bultzatzea, erakunde-mailen arteko koordinazioa hobetzea eta eskumenen arloan zenbait gairi eragiten dieten erregulazioak argitzea».

Hala, XIII. Legegintzaldiko (2024-2028) legegintza-programa onartzen duen Gobernu Kontseiluaren 2024ko urriaren 1eko Erabakian aipatzen da lege-aurreproiektu hori onartzeko konpromisoa.

Aurretik azaldutakoarekin bat etorritik, Jaurilaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26.8 artikuluan eta Xedapen orokorrak egiteko prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 12. eta 13. artikuluetan ezarritakoaren arabera, eta Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 11ko 38/2025 Dekretuaren 3. eta 4. artikuluek emandako eskumenei jarraikiz, honako hau

XEDATZEN DUT:

LEHENENGOA.- Euskadiko Turismoaren Lege-aurreproiektua egiteko prozedura hasteko agintzea, agindu honetan eta Xedapen orokorrak egiteko prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legean ezarritakoa betez. Lege-aurreproiektua egiteko, honako hauek hartuko dira kontuan:

1.- ARAUAREN XEDEA ETA HELBURUA

Lege-aurreproiektuaren xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko turismo-jardueraren esparru juridiko orokorra ezartzea, sektorearen garapen ordenatua, jasangarria eta lehiakorra bermatzeko beharrezkoak diren printzipioak, tresnak eta mekanismoak definituz eta arau-sistema modernoa, koherentea eta egungo errealitatera egokitua eratuz.

Horrenbestez, aurreproiektuaren xedea da turismo-jardueraren plangintza, sustapena, kudeaketa eta kontrola gidatu behar duten printzipioak, eskumenak, tresnak eta prozedurak ezartzea, Euskadiko ekonomia-, gizarte-, kultura- eta lurralde-garapenari egiten dioten ekarpena bermatuz. Asmo horrekin, helburu hauen inguruan egituratzen da lege-aurreproiektua:

1.- Turismo-eredu jasangarri eta arduratsu bat eratzea, ingurumen-, gizarte- eta ekonomia-jasangarritasunaren printzipioak zeharka integratuko dituen, lurraldeen artean orekatua eta kohesionatua izango den turismo-garapena bermatuz, fluxuen deskontzentrazioa eta eskaintzaren dibertsifikazioa eta dinamizazioa sustatuz, turismoak lurralde osoaren garapen ekonomiko eta sozialean lagundu dezan.

2.- Baliabide turistikoa antolatzea eta planifikatzea, baliabideak babesteko, haien narriadura saihesteko eta lurraldearen erabilera orekatua bermatzeko, premiak aurreikusteko, leku jakin batzuen saturazioa prebenitzeko eta garapen turistikoa ingurunearekin eta politika publikoekin modu koherentean bideratzeko. Bi tresna horiek elkarren osagarriak dira, eta ziurtatzen dute baliabide turistikoa gaur egun gozatu ahal izango direla, haien kontserbazioa arriskuan jarri gabe etorkizuneko belaunaldientzat.

3.- Turismo-zerbitzuen erabiltzaileen eskubideak babestea, egiazko informazioa, zerbitzu seguruak, irisgarriak eta kalitatezkoak eskuratu ditzaketela ziurtatuz, eta erreklamazio-, ikuskapen- eta kontrol-mekanismoak indartuz.

4.- Iraupen laburreko ostatatzeak iragartzen edo ematen dituzten plataforma digitaletarako betebeharrak espezifikatu sartzeko, lege kanpoko eskaintzak prebenitzeko, informazioaren gardentasuna bermatzeko, iragarritako ostatuaren egiaztapena ziurtatzeko eta kontrol- eta ikuskapen-lanetan Administrazioarekiko lankidetzak indartzeko.

5.- EAEko turismo-sektorearen lehiakortasuna indartzea, zerbitzuen berrikuntza, digitalizazioa eta kalitatea bultzatuz, bai eta eskariaren egungo joerei erantzun dieten produktu eta esperientzia berriak sortzea ere.

6.- Ezagutzan oinarritutako eredu bat sortzea, datuak aztertzeko, joerei aurre hartzeko eta erabaki publiko eta pribatuak hobeto hartzeko aukera ematen duten adimen turistiko sistemak txertatuz, jardura turistikoaren etengabeko jarraipena, arriskuen eta aukeren detekzio goiztiarra eta plangintza zehatzagoa eta efizienteagoa ahalbidetuz.

7.- Euskadiren turismo-sustapena indartzea estrategia koordinatuen bidez, helmugaren irudi sendoa, koherentea eta berezia proiektatu ahal izateko.

8.- Legez kanpoko eskaintza eta lehia desleiala desagerraraztea, ikuskapen-, zaintza- eta zehapen-sistemak indartuz, turismo-merkatu gardena, ordenatua eta indarrean dagoen araudia errespetatzen duena bermatuz.

9.- Turisten eta egoiliarren arteko bizikidetzak orekatu sustatzea, turismo-jardura tokiko komunitateen bizi-kalitatearekin, balioekin eta kultura-identitatearekin bateragarria dela ziurtatuz.

10.- Eskumena duten administrazio publikoen eta sektoreko eragilearen arteko lankidetzak sustatzea, gobernantza-mekanismo eraginkorrak ezarritik.

11.- Eredu turistiko etiko, inklusibo eta irisgarri bat bultzatzea, pertsona guztien aukeraberdintasuna, diskriminaziorik eza eta parte-hartze osoa bermatuko dituen, arreta berezia jarritik premia espezifikoak dituztenengan.

2.- PROPOSAMENAREN EGOKITASUNA

Euskadiko Turismoaren Lege-aurreproiektu hau turismo-jardura arautzen duen arau-esparrua eguneratzeko eta indartzeko beharri erantzunez egin da, ekonomia-, gizarte-, teknologia- eta ingurumen-eraldaketa sakonen testuinguru batean. Turismoak bilakaera azkarra izan du azken urteotan, honako arrazoi hauengatik: negozio-eredu berrien agerpena, sektorearen digitalizazio gero eta handiagoa, lineako bitartekotza-plataformen hedapena, bisitarien profilen dibertsifikazioa, eta esperientzia, jasangarritasunean eta helmugaren benetakotasunean oinarritutako turismo-kontsumoko modu berrien finkapena. Aldaketa horiek aukera garrantzitsuak sortu dituzte sektorea garatzeko, baina, era berean, agerian utzi dute mugak daudela indarrean dagoen araudian, eta erantzun eguneratua, koherentea eta egungo errealitatera egokitua behar dutela.

Era berean, bisitarien eta egoiliarren arteko bizikidetza bermatu behar denez eta lurraldeko natura- eta kultura-ondarea zaintzeak duen garrantzia dela-eta, esparru arautzaile bat behar da, hazkunde turistikoa modu orekatu eta jasangarrian bideratzeko gai izango dena. Turismo-baliabideen plangintza eta antolamendua, karga-gaitasunaren kudeaketa, ingurune sentikorrenen babesa eta klima-aldaketara egokitzea funtsezko elementu bihurtu dira euskal turismo-ereduaren epe luzerako bideragarritasuna bermatzeko.

Bestalde, EAEko turismo-sektorearen lehiakortasunak berrikuntza, digitalizazioa eta zerbitzuen kalitatea irmoki bultzatzea eskatzen du. Ildo horretan, turismo-adimeneko sistemak txertatzea, gobernantza eta administrazioen arteko koordinazioa hobetzea eta turismoa sustatzeko mekanismoak indartzea ezinbestekoak dira Euskadi erreferentziazko helmuga gisa finkatzeko.

Beharrezkoa da, halaber, enpresen eta erabiltzaileen segurtasun juridikoa indartzea, turismo-merkatuaren funtzionamendu ordenatua ahalbidetuko duten betebeharrak, erantzukizunak eta kontrol-mekanismoak argituz. Eragile berriak agertzeak, batez ere eremu digitalean, erregulazio zehatzagoa eskatzen duten egoerak sortu ditu, inplikaturako alderdi guztien gardentasuna eta eskubideen babesa bermatzeko.

Plataforma digitalen bidez kudeatutako iraupen laburreko ostatuak ugaritzeak erronka berriak ekarri ditu kontrolaren eta gardentasunaren eta lehia leialaren arlora; ondorioz, bitartekari digital horietarako betebeharrak argiak ezarri eta ikuskapen- eta diziplina-tresnak indartzea beharrezko egiten da. Egungo araudiak ez du tresna nahikorik eskaintzen merkatu ordenatua bermatzeko eta legez kanpoko eskaintzari eraginkortasunez aurre egiteko, eta horrek eragina du bai helmugaren kalitatean, bai araudiaren arabera jarduten duten enpresen segurtasun juridikoan.

Azkenik, lege-aurreproiektu honen egokitasuna beharrian batean oinarritzen da, turismo-sektoreari eman behar zaio-eta arau-esparru moderno eta koherente bat, egungo politika publikoen oinarri diren jasangarritasun-, irisgarritasun-, inklusio-, etika- eta gizarte-erantzukizuneko printzipioekin bat datorrena. Turismoak azken urteotan izan duen bilakaerak agerian utzi du garrantzitsua dela balio horiek helmugaren kudeaketan txertatzea, sektorearen epe ertain eta luzerako bideragarritasuna eta lehiakortasuna bermatzeko ezinbesteko baldintza gisa. Lege berriak aukera emango du printzipio horiek zeharka txertatzeko, turismo-jarduera eredu orekatuagoetara, ingurunea errespetatzen dutenetara eta egoiliarren eta bisitarien beharrekiko sentikorrak direnetara bideratuta.

Era berean, ongizate kolektiboari modu eraginkorrean lagunduko dion turismoa finkatzen lagunduko du, erabiltzaileen eskubideen babesa indartuz, zerbitzu turistikoetarako sarbidean aukera-berdintasuna sustatuz eta sektoreko enpresa, administrazio eta eragileen praktika arduratsuak sustatuz.

Testuinguru horretan, lege berria funtsezko tresna da turismoak garapen ekonomikoaren, gizarte-kohesioaren eta lurralde-orekaren eragile izaten jarraitzen duela bermatzeko, eta kalitatezko enplegua sortzen, enpresa-sarea indartzen eta natura- eta kultura-ondarea balorizatzen laguntzeko. Aurreproiektuaren egokitasuna, beraz, arau-esparrua egungo erronketara egokitze beharrez datza, sektoreari tresnak eman behar zaizkio-eta

baliabideak modu eraginkorragoan kudeatzeko, joerak aurreikusteko eta hazkunde turistikoa modu ordenatuan eta jasangarrian gertatuko dela bermatzeko.

3.- AZTERTUTAKO ERREGULAZIO-AUKERAK

Turismoaren Lege berri bat ez onartzea ere aztertu da. Hala ere, sektorearen bilakaerak, zerbitzuak emateko eredu berrien agerpenak, digitalizazioaren inpaktu gero eta handiagoak eta jasangarritasun-, kalitate- eta helmugaren kudeaketa-irizpideak modu sendoagoan integratzeko beharrak agerian uzten dute indarrean dagoen esparru juridikoak ez duela arau-estaldura nahikorik eskaintzen egungo erronkei aurre egiteko. Egungo erregulazioari eustekak araubide juridiko bat babestea ekarriko luke berekin, turismoaren dinamika berriei eta turismoa gero eta konplexuagoa izatearen ondoriozko eskakizunei eraginkortasunez erantzuteko mugak dituen.

Indarrean dagoen araudia partzialki aldatzeko aukera ere baloratu da. Hala ere, aukera horrek inkoherentziak eta arau-disfuntzioak sor ditzake, bereziki kontuan hartuta egin beharreko doikuntzek turismo-ereduaren egiturazko elementuei eragiten dietela eta ezin direla zatika jorratu arriskuan jarri gabe ordenamenduaren segurtasun juridikoaren, argitasunaren eta koherentziaren printzipioak. Erreforma partzial batek ez luke ahalbidetuko modu ordenatuan integratzea kudeaketa-tresna berriak, digitalizazioaren arloko aurrerapenak, plataforma digitalen jardueratik eratorritako betebeharrak eta turismo-sistemaren beraren bilakaerak planteatzen dituen eskakizunak, ikuspegi integrala eta erregulazio koherentea eskatzen baititu.

Horregatik guztiagatik, alternatibarik egokiena Euskadiko Turismoaren Lege berri bat egitea da, zeinak bidea emango baitu esparru arautzaile osoa, modernoa eta sektorearen benetako beharretara egokitua eratzeke. Aukera hori egokiagoa da sistemaren koherentzia bermatzeko, segurtasun juridikoa indartzeko, erregulazio onaren printzipioak txertatzeko eta eskumen autonomikoak egikaritzean proportzionaltasuna ziurtatzeko. Lege-testu berri bat onartzea, beraz, biderik eraginkorrena da planteatutako helburuak lortzeko eta Euskadin turismoak gaur egun dituen eta etorkizunean izango dituen erronkei erantzuteko.

4.- BIDERAGARRITASUN JURIDIKO ETA MATERIALA

4.1. BIDERAGARRITASUN JURIDIKOA

Lege-aurreproiektuaren proposamena erabat bideragarria da juridikoki, kokaturik baitago Euskal Autonomia Erkidegoak turismoaren arloan dituen eskumen propioen erabilera legitimoaren barruan. Haren edukia bat dator indarrean dagoen ordenamendu juridikoarekin. Ez da identifikatu izapidetzea edo aplikazioa mugatzen duen lege-murrizketarik; izan ere, turismoaren erregulazioa berezko eskumen-eremua da, eta guztiz bidezkoa da lege-mailako arau bat onartzea, sektorea modu integralean antolatzeke eta esparru arautzaile eguneratu bat emateko, arloko politika publikoekin koherentea dena.

Konstituzioaren ikuspegitik, lege-aurreproiektua guztiz bideragarria da; izan ere, Espainiako Konstituzioaren 148.1.18 artikulua ezartzen du autonomia-erkidegoek beren gain har ditzaketela turismoa sustatzeko eta antolatzeke eskumenak, beren lurralde-eremuan. Artikulu horrek autonomia-erkidegoei ahalmena ematen die sektore horretan erregulazio propioa garatzeko, eskumen-eremu propio bat eratuz, non onar baititzakete turismo-

jarduera antolatzeke lege-mailako arauak. Esparru horretan, Euskal Autonomia Erkidegoak legitimoki baliatzen du turismoaren arloko legegintza-ahala, eta ez dago estatu-erreserbarik, arlo horretako lege autonomiko baten onarpena mugatzen edo baldintzatzen duenik.

Euskadiko Autonomia Estatutuaren 10.36 artikulua arabera (3/1979 Lege Organikoa, abenduaren 18koa, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuarena), Euskal Autonomia Erkidegoak du bere lurralde-eremuan turismoa sustatu eta antolatzeke eskumen eskusiboa, eta horrek erabat gaitzen du sektore hori modu integralean arautuko duen lege-mailako arau bat onartzea.

Era berean, adierazitakoa errepikatzea. Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak, honako funtzio hauek esleitzen dizkio Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailari, besteak beste: Esparru horretan, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 11ko 38/2025 Dekretuak sail horri esleitzen dizkio turismo-arloko politika publikoak planifikatzeko, antolatzeke, bultzatzeko eta koordinatzeko eginkizunak.

Azkenik, ekimen arauemailea bat dator Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean aitortutako udal-eskumenekin; izan ere, lege horren 17.1.22) artikulua udalerriari esleitzen die, eskumen propio gisa, «tokiko turismoa kudeatzea eta sustatzea». Aurreproiektuak erabat errespetatzen du eskumen-eremu hori, eta turismoa oro har antolatzeke arau gisa egituratzen da Euskadin, eta ez ditu aldatzen edo kaltetzen tokiko legeriak udal-erakundeei esleitzen dizkien funtzioak.

4.2. BIDERAGARRITASUN MATERIALA ERREFERENTZIA BEREZIA ERREGULAZIO ONAREN PRINTZPIOETARA EGOKITZEARI

Lege-aurreproiektua egitea eta izapidetzea materialki bideragarria da, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak badituelako haren garapena bere gain hartzeke behar diren antolaketa-baliabideak eta baliabide teknikoak. Turismo-plangintza eta -antolamenduaz arduratzen diren unitateek langile espezializatuak dituzte, bai eta esperientzia ere ekimen arauemaileak izapidetzen, eta, horri esker, prozesuari behar bezala ekin dakioke. Indarrean dagoen administrazio-egiturak, gainera, barne-koordinazioa eta sektoreko eragileekiko lankidetzaz errazten ditu, lanketa-prozesua zorrotza eta ondo oinarritua izango dela ziurtatuz.

Era berean, lege-aurreproiektua egitea materialki bideragarria da araudiaren kalitatearen ikuspegitik ere; izan ere, prozesua bat etorriko da Xedapen orokorrak egiteke prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 4. artikuluan jasotako arau-kalitatearen printzipioekin. Ekimenak EAEko turismo-sisteman identifikatutako premia bati erantzuten dio, eta tresna egokiena da lortu nahi diren helburuak lortzeke, haren beharra eta eraginkortasuna bermatuta. Proposatutako erregulazioa ezinbestekoa dena mugatuko da, proportzionaltasun-printzipioarekin bat etorritik, eta modu harmonikoan txertatuko da indarrean dagoen ordenamendu juridikoan, segurtasun juridikoa indartuz.

Prestatzeko prozedurak gardentasun- eta partaidetza-mekanismoak izango ditu, eta informazio garrantzitsurako sarbidea eta inplikaturako eragileen esku-hartzea bermatuko ditu. Era berean, testu arauemailea argitasun-, sinpletasun- eta ulergarritasun-irizpideak erabiliz idatziko da. Ekimenak irisgarritasuna, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna

(genero-eraginari buruzko txostena egitea barne) eta euskararen eta gaztelaniaren arteko hizkuntza-berdintasuna bermatuko ditu, bi hizkuntza-bertsioak aldi berean eta modu baliokidean eginez. Azkenik, araua jasangarritasunera bideratuko da, garapen ekonomikoaren, gizarte-ongizatearen eta ingurumen-babesaren arteko ikuspegi orekatua integratuz.

5.- ORDENAMENDU JURIDIKOAREN GAINEKO ONDORIOAK

Legea onartzeak berekin ekarriko du espresuki indargabetzea bertan xedatutakoaren aurkakoak diren maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak, eta, zehazki, araua indarrean jartzen denean, berariaz aurreikusten da honako arau hauek indargabetzea:

- 13/2016 LEGEA, uztailaren 28koa, Turismoarena.
- 317/1996 DEKRETUA, abenduaren 24koa, turismo-erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak arautzen dituen.

Honako arau hauek indarrean jarraituko dute, baldin eta etorkizuneko legean xedatutakoaren aurkakoak ez badira eta aldatzen ez badira edo erregulazio berriek ordeztzen ez badituzte:

- 102/2001 Dekretua, maiatzaren 24koa, hotel-establezimenduen antolamendua ezartzen duena, hotel-establezimenduen antolamendua ezartzen duen Dekretua aldatzen duen apirilaren 16ko 201/2013 Dekretuak aldatua; eta 6/2015 Dekretua, urtarrilaren 27koa, hotel-establezimenduen antolamendua ezartzen duen Dekretua bigarrenez aldatzen duena.
- 199/2013 Dekretua, apirilaren 16koa, landa-inguruneen turismo-ostatuak establezimenduak arautzen dituen.
- 198/2013 Dekretua, apirilaren 16koa, apartamentu turistikoak arautzen dituen.
- 200/2013 Dekretua, uztailaren 9koa, turismo-aterpetxeak arautzen dituen.
- 396/2013 Dekretua, uztailaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan kanpinak eta beste kan- paketa-turismoko modalitate batzuk arautzeko buruzkoa.
- 101/2018 Dekretua, uztailaren 3koa, erabilera turistikoko etxebizitzak eta etxebizitza partikularretako logeak buruzkoa.
- 112/2019 Dekretua, uztailaren 16koa, Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroari buruzkoa
- AGINDUA, 2024ko martxoaren 14koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroari buruzko uztailaren 16ko 112/2019 Dekretua garatzen duena, turismo aktiboko eta abentura-turismoko jarduerak dagokionez.
- 26/2024 Dekretua, martxoaren 5koa, Turismo-gidarien Euskadiko Jarduerarena.
- AGINDUA, 2024ko uztailaren 3koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, Euskadin gaitutako turismo-gidariak egiaztatze bereizgarriaren eredu ofiziala onartzen duena.

Era berean, Turismoaren Lege berri bat onartzeko, erregelamendu bidezko garapen berri bat egin beharko da, arauak bere helburuak lortzeko estaldura operatibo egokia izan dezan.

6.- INPAKTUAREN EBALUAZIOAK

6.1. INPAKTUAREN EBALUAZIOAK

Lege-aurreproiektuarekin batera, dossier bat egingo da, egoki diren inpaktu-ebaluazioak jasoko dituen, xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen araudiari jarraikiz. Dossier horrek jasoko ditu arauak ekonomia-, gizarte-, administrazio-, aurrekontu- eta ingurumen-arloetan izan ditzakeen ondorioei buruzko azterketak, bai eta lege berriak aldatzen edo indargabetzen dituen xedapenei dagokienez alde zuzenetik egindako beste edozein ebaluazio ere. Helburua da oinarri tekniko nahikoa ematea, arau-ekimenaren egokitasuna, beharra eta eraginkortasuna baloratu ahal izateko.

6.2. GENEROAREN ARABERAKO ERAGINARI BURUZKO ATARIKO AZTERKETA

Xedapen orokorrak egiteko prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 14.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, generoaren arabera eraginari buruzko txosten bat idatziko da, eta bertan jasoko da proposamenak zer eragin izan dezakeen emakumeen eta gizonen egoeran, biak ala biak kolektibotzat hartuta.

Aztertuko da ea arauak ondorio positiboak edo kontrakoak dituen emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak kentzeko eta haien berdintasuna sustatzeko helburuan, eta, hala badagokio, testua idaztean kontuan hartu diren neurri zuzentzaile egokiak ere aztertuko dira.

Era berean, Xedapen orokorrak egiteko prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15. artikuluan 3 f) apartatuan xedatutakoaren arabera, generoaren arabera inpaktuari buruzko txosten hori arau-inpaktuaren azterketaren memoriaren parte izango da. Bertan, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuarekin lotuta egindako izapideen eta haien emaitzen azalpen zehatza jasoko da.

Hala ere, aurretiazko azterketa batean, uste da lege-aurreproiektuak modu positiboan eta esanguratsuan lagunduko duela emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean aurrera egiten, turismoaren eremuan. Arauak zeharkako genero-ikuspegi bat eskaintzen du, zeinak bidea emango baitu ikuspegi hori turismo-politiken plangintzan, kudeaketan eta ebaluazioan txertatzen, eta, hala, lagunduko du emakumeen eta gizonen parte-hartze orekatua sustatzen, sektoreko eremu guztietan. Era berean, aurreproiektuak tresnak aurreikusten ditu, egiturazko desberdintasunak murrizten eragin dezaketenak, turismo-balioaren katean duten ikusgarritasuna indartuz.

Proiektatutako erregulazioak esperientzia turistikoaren segurtasuna, irisgarritasuna eta kalitatea hobetzen ere lagundu dezake genero-ikuspegitik, emakumeek eta gizonek zerbitzu turistikoaren erabileran eta jarduerari lotutako espazio publikoetan dituzten premia desberdinei erantzuten dieten irizpideak txertatuz. Era berean, arauak erraztasunak emango ditu egon daitezkeen arrakalak edo inpaktuak identifikatzeko, sexuaren arabera bereizitako adierazleak barne hartzen dituzten informazio- eta ebaluazio-sistemen bidez, eta, horrela, politika publikoak bideratu ahal izango dira desberdintasunak zuzentzera eta sektore turistiko inklusiboagoa eta bidezkoagoa sustatzera.

7. AURREKONTUETAN IZANGO DITUEN ONDORIOAK

Dagokion memoria ekonomikoa egingo da, zeinak etorkizuneko araua aplikatzearen ondoriozko kostua aztertuko baitu, bai eta arauaren aplikazioak EAEko aurrekontu

orokorretan izango duen eragina ere, urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren 42.1 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Etorkizuneko Turismo Legeari dagokionez, uste da hura onartzeak ez diola zuzeneko edo berehalako kosturik eragingo Administrazioari, eta ez duela baliabide gehigarriak eskatuko aurreikusitako ia jarduketa guztiak ezartzeko; izan ere, aurreikusitako betebeharrak eskuragarri dauden giza baliabideen eta baliabide materialen bidez gauzatuko dira, jarduketak planifikatzeko, jarraipena egiteko, ebaluatzeko eta ezartzeko ohiko zereginen esparruan. Ondorioz, ez da aurreikusten, oro har, funtzio horiei lotutako gastu-gehikuntzarik.

Era berean, ez da diru-sarrerarik edo aurrezkirik aurreratzen indarrean dagoen aurrekontu-egoerarekin alderatuta, hargatik eragotzi gabe arauan aurreikusitako arau-haustek eta zehapenak ezartzetik erator daitezkeen baliabideak.

8.- EKAR DITZAKEEN ONURAK ETA ADMINISTRAZIO-KARGAK

Lege-aurreproiektuak, bat etorritik barne-merkatuko zerbitzuei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko abenduaren 12ko 2006/123/EE Zuzentarauarekin, erantzukizunpeko adierazpena mantentzen du jarduera turistikoak egiteko tresna gisa, baina administrazio-sinplifikazioan sakontzen du, kendu egiten baitu lehen harekin batera aurkeztu behar zen dokumentazioa aurkezteko betebeharra. Horrela, baldintzak egiaztatze, aitorpenaren egiazkotasuna eta ondorengo egiaztapena hartuko dira oinarritzat. Bilakaera horri esker, sektoreko pertsona eta enpresentzako administrazio-kargak nabarmen murrizten dira, turismo-jardueren abiaraztea arintzen da eta kudeaketa-eredu efizienteagoa, modernoagoa eta arinagoa lortzen laguntzen da. Aldaketa hori sinplifikazio administratibo esanguratsu bat da; izan ere, dokumentu-karga geroko uzten du, eta turismo-enpresen jarduera-prozeduren hasiera arintzen du.

Prozeduren nahitaezko digitalizazioak, halaber, kargak murriztea dakar, aukera ematen baitu eskaerak elektronikoki aurkezteko, inprimakiak normalizatzeko eta joan-etorriak eta paperezko dokumentazioa desagerrarazteko.

Akreditazio-modalitate horrek zuzeneko onurak dakarzikie enpresei, denbora murrizten baitu, izapide presentzialak edo errepikakorrak ezabatzen baititu eta betekizunak betetzea errazten baitu sistema arinago eta eraginkorrago baten bidez. Era berean, laguntzen du lehiakortasuna hobetzen eta dokumentazioa prestatzeari eta aurkezteari lotutako administrazio-kostuak murrizten.

Azkenik, turismo-jarduera errazteko mekanismo gehigarriak ditu. Haietako bat da gutxieneko baldintzak betetzeari buruzko alde aurreko txosten bat eskatzeko aukera izatea, txosten hori tresnatzat hartuta, enpresa-erabakiak hartzen eta aurkeztutako proiektuen kalitatea hobetzen lagunduko duena. Era berean, arauak dispentsen sistema bat aurreikusten du, zeinak baldintza jakin batzuk egokitzeko bidea emango baitu inguruabar justifikatuak daudenean, interes publikoaren babesa eta zerbitzu turistikoen prestazio egokia aldi berean bermatuz. Horrekin, arau-esparru malguago eta efizienteago baterantz egiten da aurrera, sektorearen benetako beharretara bideratuta dagoena.

9.- PROPOSATUTAKO ERREGULAZIOAREN GAIA ETA EDUKIA DIRELA-ETA EGOKITZAT JOTZEN DIREN IZAPIDEAK ETA TXOSTENAK

Lege-aurreproiektua agindu honen edukiaren arabera idatziko da, ekainaren 30eko 6/2022 Legean eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 128. artikulutik 133. artikulura bitartean ezarritako prozedurari jarraikiz. Plana egiten den bitartean, eskura dauden araugintza-aukerak aztertuko dira, lortu nahi diren helburuetara ondoen egokitzen direnak hautatuta, eta etorkizuneko erregulazioaren kalitatea eta legezkotasuna bermatzeko beharrezkotzat jotzen diren kontsultetatik eratorritako ekarpenak sartuko dira.

Jarraian, prozeduraren esparruan beharrezkotzat jotzen diren izapide eta txostenen zerrenda azaltzen da.

9.-1.-Prestaketa (aurretiazko kontsulta publikoa): 6/2022 Legearen 11. artikulua arabera, alde aurreko kontsulta publikoa egin da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan, 15 egunez, eta, herritarrei eskatu zaie iritzia eman dezatela ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoei buruz, hura onartzeko beharrari eta egokitasunari buruz, arauaren helburuei buruz eta etorkizuneko arauak uki ditzakeen pertsona eta erakunde adierazgarrien iritzia biltzeko bertan.

Aurretiazko kontsulta hori 2025eko abenduaren 23tik 2026ko urtarilaren 15era bitartean egin da (biak barne), 2025eko abenduaren 23an Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoko Iragarki Taula Elektronikoa eta Irekia plataforman iragarki bat argitaratuz. Plataforma hori herritarren eta Administrazioaren arteko komunikazio zuzeneko kanala da, Internet bidezkoa, hizkuntza ez-administratiboa darabilena, eta, han, besteak beste, Eusko Jaurlaritzaren lege-proiektuak eztabaidatu, baloratu eta herritarren iritziekin osatzen dira.

Kontsultaren emaitza araua egiteko prozeduran sartuko da, kontsultan parte hartu duten pertsonen eta erakundeek emandako iritzien laburpena jasoko duen txosten baten bidez.

9.-2.- Hasiera: Alde aurreko kontsulta publikoa amaituta, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuak lege-aurreproiektua egiteko prozedura hasiko du, 6/2022 Legearen 12. artikuluan xedatutakoaren arabera. Bestalde, 6/2022 Legearen 13.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, hasiera-agindu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratu behar da.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratzeak Jaurlaritza osatzen duten sail guztiei automatikoki jakinaraztea ekarriko du, ekimenari buruzko oharra egin ditzaten.

Testua bi hizkuntza ofizialetan idatziko da, euskaraz eta gaztelaniaz, argitaratu ahal izateko.

Xedapen orokorrak egiteko prozeduraren Oinarrizko Ereduarekin bat (Gobernu Kontseiluak 2025eko maiatzaren 13an egindako bilkuran onetsitakoa), prozeduran interesdun irizten diren pertsonen eta erakundeen jakinaraziko zaie prozedura hasi dela, hargatik eragotzi gabe ondorengo izapideetan —adibidez, jendaurreko informazioaren izapidean— interesdun berriak ager litezkeela.

9.-3.- Alde aurreko onarpena: Lege-aurreproiektua idatzi ondoren (horretarako, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren uztailaren 28ko 78/2023 Ebazpenari jarraituko zaio, zeinaren bidez xedatzen baita lege-proiektuak, dekretuak, aginduak eta ebazpenak egiteko jarraibideak onartzen dituen

Erabakia argitaratzea), testu elebiduna Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuaren agindu baten bidez onartuko da, ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aldez aurreko onarpenera emateko aginduari onartutako testu elebiduna erantsiko zaio, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarkitaulan argitaratuko da.

Arau-eraginaren azterketari buruzko memoria idatziko da, Xedapen orokorrak egiteko prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15. artikuluen 3. apartatuan ezarritako edukiarekin.

Lege-aurreproiektua Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko Aholkularitza Juridikoaren txosten juridikoaren izapidearen mende jarriko da.

Memoria ekonomiko espezifiko bat egingo da, eta, aurretiko onarpenera jaso duen testuan izandako alaketak kontuak hartuta, hasierako aginduan aurreikusitako kostuen balioespeneko balizko zehaztapenak edo desbideratzeak egiaztatuko edo adieraziko ditu, eta, orobat, gastuak eta diru-sarrerak zenbatuta, Administrazio Publikoaren aurrekontuetan izango duen eragina, finantzaketarako iturri eta moduak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ekonomia- eta araudi-kontrolaren gaineko arauak zehaztutako beste alderdi batzuk.

9.-4.- Jarraibideak

a) Izapideak kontzentratzea

Egintza bakar batean erabakiko dira izaera dela-eta batera bultza daitezkeen eta bata bestearen ondoren bete beharrekoak ez diren izapide guztiak.

Izapide guztiak aldi berean egingo dira, eta hilabeteko epe komun berean, aurretiaz onartutako xedapenaren testua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa argitaratzen denetik hasita.

b) Aginduzko txostenak eta irizpenak

Lege-aurreproiektuan arautzen den gaia dela eta, honako txosten eta izapide hauek egin beharko dira:

- Enpresetan duen eraginari buruzko txostena, Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari laguntzeko ekainaren 28ko 16/2012 Legearen 6. artikuluan ezarritakoaren arabera.
- Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen egiaztapen-txostena.
- Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena, xedapen orokorrekin euskararen erabileraren normalizazioan zer eragin duten eta hizkuntza arloan indarrean dagoen araudia betetzen ote duten argitzeko, 233/2012 Dekretuak, azaroaren 6koak, Xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duenak, arautzen duen eran.

- Gobernu Irekiaren eta Gobernu Onaren Zuzendaritzak egindako txostena, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 317/2024 Dekretuak 12.1.n) artikuluan xedatutakoa betez.
- Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutua erakunde autonomoaren txostena. Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutua sortzeko 9/2007 Legearen 4.1.o) artikulua ezartzen du haren nahitaezko txostena eskatuko dela, proiektuak kontsumitzaileei eta erabiltzaileei eragiten dielako.
- Euskadiko Kontsumoko Kontsulta Batzordeari kontsulta egitea, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuari buruzko apirilaren 27ko 4/2023 Legearen 10.a) artikuluekin bat. Artikulu horrek xedatzen du kontsulta nahitaezkoa dela, izapidetzen ari den proiektu arauemaileak gai horri eragiten diolako.
- Aurreproiektua Euskadiko Turismo Mahaira eramatea, Euskadiko Turismo Mahaia sortzen duen 5/2015 Dekretuaren 2.c) artikulua aplikatuz, jakinaren gainean egoteko.
- Lehiaren Euskal Agintaritzaren txostena, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko 1/2012 Legearen 3.5 artikuluari jarraikiz, artikulua horren arabera arlo horri eragiten dioten proiektuetan haren irizpena ez-loteslea baita.
- Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren txostena, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzari buruzko abenduaren 21eko 16/2023 Legearen 6. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Arau-hauste penalak prebenitzeko, detektatzeko, ikertzeko eta epaitzeko eta zehapen penalak betearazteko tratatzen diren datu pertsonalak babesteari buruzko maiatzaren 26ko 7/2021 Lege Organikoaren 49.1.m eta 50.c artikuluekin lotuta.
- Haurren eta Nerabeen Behatokiari dagokion txostena, Haur eta Nerabeen otsailaren 15eko 2/2024 Legearen 3.4 artikuluen arabera.
- Euskadiko Irisgarritasunaren Behatokiaren txostena.

c) Entzunaldia eta informazio publikoa

Xedapen orokorrak egiteko prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 17. artikuluen 3. apartatuaren arabera, entzunaldia eta, hala badagokio, informazio publikoa aurreko artikuluan aurreikusitako gainerako izapideekin batera egingo dira, epe komun berean, alde aurreko onarpena duen xedapenaren testua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan argitaratzen denetik aurrera.

Bidezkoa da Xedapen orokorrak egiteko prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 17.1 artikuluan ezartzen den entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapidea egitea. Izapide horren bidez, herritarrek parte hartzeko eskakizuna beteko da.

Herritarrei arreta integral eta multikanala emateko eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izateko ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuaren 15. artikuluen arabera, erakundeek, pertsona juridikoen eta prozedura izapidetzeko ardura duen organoaren arteko komunikazioak bitarteko telematikoen bidez egingo dira soilik.

Hala ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.1 artikulua arabera, pertsona fisikoek noiznahi erabaki ahal izango dute bitarteko elektronikoen bidez komunikatzen diren ala ez.

Entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapidea egiteko, jendaurrean jarri beharko da, dagokion iragarkia EHAA eta egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratuta.

Entzunaldia eragindako herritarrak biltzen edo ordezkatzeko dituzten erakunde eta elkarten bidez egingo da; erakunde eta elkarte horiek legeak aitortutakoak izan behar dute, eta haien helburuek lotura zuzena izan behar dute proiektatutako xedapenaren xedearekin.

6/2022 Legearen 13.1.f artikulua arabera, jarraian, aldeztu aurretik, xedapenak uki ditzakeen subjektu eta erakunde adierazgarrienak zerrendatzen dira:

- SEA – ARABAKO ENPRESAK
- BILTZARRAK ANTOLATZEN DITUZTEN ENPRESEN EUSKAL ELKARTEA
- DOLORES SOPEÑA FUNDAZIOA
- EKA – EUSKAL KONTSUMITZAILEEN ELKARTEA
- BILBOKO MERKATARITZA GANBERA
- BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
- BILBOKO UDALA
- ARABAKO FORU ALDUNDIA
- NEKAZALTURISMOA ELKARTEA
- ASPAGI, GIPUZKOAKO HOTELEN ELKARTEA
- ADEGI – GIPUZKOAKO ENPRESEN ELKARTEA
- AKTIBA – EUSKADIKO TURISMO AKTIBOKO, ABENTURAKO ETA NATURAKO ENPRESEN ELKARTEA
- EUSKADIKO TURISMO-GIDARIEN ELKARTE PROFESIONALA
- EIDE ELKARTE MUGATUA – HEZIKETA ETA GARAPENERAKO NAZIOARTEKO IKASTETXEAK
- EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
- LANGILE ABERTZALEEN BATZORDEEN FEDERAZIOA
- VITORIA-GASTEIZKO UDALA
- EUSKAL HERRIKO KONTSUMITZAILEEN BATASUNA (EHKB)
- FACUA EUSKADI – KONTSUMITZAILEAK ETA ERABILTZAILEAK EKINEAN
- EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
- EUSKADIKO LANGILE KOMISIOEN KONFEDERAZIO SINDIKALA (EUSKADIKO CCOO-REN KS)
- BASQUE CULINARY CENTER FUNDAZIOA
- ATRAE – EUSKADIKO TURISMOA SUSTATZEKO TURISMO-AGENTZIA HARTZAILEEN ELKARTEA
- DEUSTUKO ELIZAREN UNIBERTSITATEA
- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA
- DONOSTIAKO UDALA
- BILSAN INFORMATIKA SOZIJETATE MUGATUA
- SEA – ARABAKO ENPRESAK
- APARTURE – APARTAMENTU TURISTIKOAREN EUSKADIKO ELKARTEA
- DESTINO BILBAO ELKARTEA
- ARABAKO MERKATARITZA ETA ZERBITZUETAKO ENPRESABURUEN FEDERAZIOA
- EUSKADIKO UNIÓN GENERAL DE TRABAJADORES (UGT)

- GIPUZKOAKO GANBERA
- XARMA ELKARTEA – EUSKAL HERRIKO OSTATU XARMAGARRIEN ELKARTEA
- AECA – KANPINEN EUSKADIKO ELKARTEA
- BIZKAIKO OSTALARITZA ELKARTEA
- EUSKAL LANGILEEN ALKARTASUNA KONFEDERAZIOA
- GIPUZKOAKO OSTALARITZAKO ENPRESABURUEN ELKARTEA
- ANFITRIONES BASQUE COUNTRY ELKARTEA
- ARABAKO MERKATARITZA, INDUSTRIA ETA ZERBITZU GANBERA
- BASQUETOUR TURISMOAREN EUSKAL AGENTZIA
- IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EUSKAL KONTSEILUA

d) **Beste administrazio batzuek parte hartzea eta haiei kontsulta egitea:** Ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 18. artikulua betez, xedapenaren testuaren alde aurreko onarpena argitaratzen denetik hilabeteko epe komun berean, aukera emango zaie foru-aldundiei, hiru lurralde historikoetako hiriburuetako udalei eta EUELi, xedapen orokorrak egiteko prozeduran parte hartzeko.

Ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 16. artikuluan xedatutakoaren arabera, hasteko Agindu honen bidez agindutako nahitaezko txostenen eta irizpenen eskaera, entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapidea eta beste administrazio batzuen parte-hartzea eta haiei kontsulta egitea aldi berean eta hilabeteko epe komunean egingo dira, alde aurreko onarpena duen xedapenaren testua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoan argitaratzen denetik zenbatzen hasita.

e) **Nahitaezko txosten eta irizpen funtsezkoak, espedientea aurreikusitako izapideen arabera osatu ondoren**

- Tokiko Gobernuen Batzordearen nahitaezko txostena: Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 90. eta 91. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, instrukzio-espedientea amaitu eta hurrengo hilabetearen, funtsezkoak ez diren izapideak betetzeko hilabeteko aldibereko epea bete ondoren.
- Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen txostena (EGAB): 8/2012 Legearen 3.1.b) artikuluan xedatutakoarekin bat, haren txostena nahitaezkoa da, lege-aurreproiektua ekonomia- eta gizarte-politikarekin lotuta dagoelako.
- Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ekonomia- eta arau-kontrolari buruzko txostena: 6/2022 Legearen 23. artikuluan ezarritakoa betez, ekonomia- eta araudi-kontrolari buruzko txostena eskatuko zaio Kontrol Ekonomikoko Bulegoari, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuaren 25., 26. eta 27. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

9.5. Amaitu eta onartzea

a) **Azken espedientea eta prozeduraren memoria laburra:** azken espedientea 6/2022 Legearen 24.1 artikuluan xedatutakoari jarraikiz eratuko da. Era berean, prozedura osoaren memoria labur bat erantsiko da, 24. artikuluko horren 2. eta 3. apartatuetan adierazitako edukiarekin.

b) **Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena eta Eusko Legebiltzarrerara bidali beharreko dokumentazioa:** Espedientea osorik izapidetu ondoren, eta ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 25. artikuluekin bat, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena eskatuko da, eta dokumentazio bera helaraziko zaio Eusko Legebiltzarrari, hala baitago xedatuta Jaurlearitzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legean.

Batzorde horren irizpenaren iradokizunen ondorioz aldaketarik egingo balitz, horren berri emango zaio Kontrol Ekonomikoko Bulegoari, ekainaren 30eko 14/1994 Legearen 27.2 artikulua betetzeko; betiere, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legearen azken xedapenetako lehenengoaren idazketaren arabera.

c) **Jaurlearitzaren Kontseiluari igortzea:** Lege-aurreproiektua Gobernu Kontseiluari aurkeztuko zaio, azter dezan; aztertzen duen bilkuran bertan erabakiko du behin betiko onartuko duen, eta, hala bada, lege-proiektu gisa Legebiltzarrerara igortzea; edo, bestela, azken idazketa egiteko kontuan hartu beharko diren irizpideak ezarriko ditu, bai eta, hala bategokio, behin betiko onartu bitarteko bidean egin beharreko jarduketak ere.

10. TESTU ARTIKULATUA ELE BITAN IDAZTEKO TEKNIKA

Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 8.1 artikuluan eta Lege, legegintzako dekretu, dekretu edo agindu izango diren xedapen orokorrak bi hizkuntzatan idazteko neurriak onartzen dituen Gobernu Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 14ko Erabakian xedatutakoa betez, ezartzen da dekretuaren euskarazko eta gaztelaniazko idazketa elebiduna egiteko sistema Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren (IZO) ardura peko berrikuspen-modalitateko itzulpena izango dela, organo izapidegileak bi hizkuntza ofizialetan arau-testua IZOri igorri. Organo izapidegileak euskarazko bertsioari buruzko informazio zehatza (egilea eta arduraduna) emango dio IZOri. Era berean, organo izapidegilearen lankidetzak aktiboa izango da. Organo horrek beharrezko argibideak emango ditu, itzulpenak arauaren eduki juridikoa eta teknikoa zintzo islatzen duela ziurtatzeko aukera ematen badute. Horrela, idazketa elebiduneko prozesua ahalik eta zorrotasun handienarekin egingo dela bermatzen da.

11.- ZABALKUNDEA ETA PUBLIZITATE AKTIBOA

Pertsonak administrazio publikoekiko harremanetan dituzten eskubideei buruz ezarritakoaren arabera, informazio publikoa, artxiboak eta erregistroak eskuratzeko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 13.d) artikuluan aurreikusitakoaren arabera, horretarako gaitutako tresnaren bidez, Legegunea.

Lege-aurreproiektua egiteko prozeduran zehar sortzen den garrantzi juridikoko informazioa Gardentasun Esparruan argitaratu beharko da, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 7. artikuluan xedatutakoarekin bat etorrira.

12. EUOPAR BATASUNAREN AURREAN EGIN BEHARREKO IZAPIDEAK

Europar Batasunaren aurrean egin beharreko izapideei dagokienez, TRIS (Technical Regulation Information System) prozedura egingo da Europako Batzordearen aurrean.

Prozedura horrek erregelamendu teknikoko proiektuen jakinarazpenak EB TRIS sistemara egiteko, berrikusteko, baliozkotzeko eta bidaltzeko barne-prozedura ezartzen du, eta 2015/1535 (EB) Zuzentarautik eratorritako betebeharrak betetzen direla bermatzen du, informazioaren gizarteko zerbitzuei edo jakinaraztera behartzen duten merkatu-murrizketei dagokienez.

Bigarrenena.- Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 11ko 38/2025 Dekretuaren 6.1.a) artikulua arabera, Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritza izendatzea prozedura izapidetzeko organo arduradun, Turismo eta Merkataritzako sailburuordeak gainbegiratuta, otsailaren 11ko 38/2025 Dekretuaren 4.2.p) artikuluekin bat.

Hirugarrena.- Agindu honen berri ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan, 6/2022 Legearen 13.2 artikuluan eta Arau-xedapen orokorrak lantzeko prozeduraren Oinarrizko Izapidetze Eredua onesten duen Gobernu Kontseiluaren 2025eko maiatzaren 13ko Erabakian xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren data

Izpta.: Javier Hurtado Domínguez

Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburua

ERANSKINA

Euskadiko Turismoaren Lege-aurreproiektua egiteko prozedura hasteko Aginduari erantsitako dosierra.

Xedapen orokorrak egiteko prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 13.1.c artikuluan ezartzen denez, xedapen arauemaile baten proiektua hasteko aginduak, besteak beste, erantsitako txosten bat izan behar du, eta, bertan, proiektatutako arauaren edo haren eraginpeko xedapenen inpaktu- eta emaitza-ebaluazioak edo bestelakoak jaso behar dira, aurreko puntuaren arabera. Kontuan izanda generoaren araberrako eraginaren alde aurretiko analisiak, haien artean sartuko dira egin nahi den arauak genero-ikuspegitik izan dezakeen garrantziaren lehen estimazio bat, berdintasunerako administrazio-unitateen aholkuarekin.

Dosier honek betetzen du aipatutako arauan ezarritakoa.

1.- Proiektatutako arauaren edo haren eraginpeko xedapenen eraginari, emaitzei edo bestelakoei buruzko ebaluazioak, ordenamendu juridikoan izango dituen ondorioen aurreikuspenaren arabera, eta araua indarrean jartzearen ondorioz berariaz edo inplizituki xede berarekin aldatuko diren indarreko arauak.

Proiektuan dagoen arauaren xedea da Euskal Autonomia Erkidegoan turismo-jardueraren esparru juridiko orokorra ezartzea, sektorearen garapen ordenatua, jasangarria eta lehiakorra bermatzeko beharrezkoak diren printzipioak, tresnak eta mekanismoak definituz eta arau-sistema modernoa, koherentea eta egungo errealitatera egokitua eratuz.

Horrenbestez, aurreproiektuaren xedea da turismo-jardueraren plangintza, sustapena, kudeaketa eta kontrola gidatu behar duten printzipioak, eskumenak, tresnak eta prozedurak ezartzea, Euskadiko ekonomia-, gizarte-, kultura- eta lurralde-garapenari egiten dioten ekarpena bermatuz. Proiektatutako araua bat dator indarrean dagoen zuzenbidearekin; izan ere, Konstituzioaren 148.1.18 artikulua xedatzen du autonomia-erkidegoek eskumen eskusiboa dutela turismoa beren lurralde-eremuan antolatzeke. Aurreikuspen hori Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 10.36 artikuluan jasota dago, eta lurralde historikoei ez zaie esleitzen azaroaren 25eko 27/1983 Legean, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunak eta lurralde historikoetako foru-organoen arteko harremanei buruzkoan. Turismo-jarduera antolatzeke eskumen hori ere ez dago jasota Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikuluan udalerriei esleitutako eskumenen artean.

Legea onartzeak berekin ekarriko du espresuki indargabetzea bertan xedatutakoaren aurkakoak diren maila bereko edo beheagoko xedapen guztiak, eta, zehazki, araua indarrean jartzen denean, berariaz aurreikusten da honako arau hauek indargabetzea:

- 13/2016 LEGEA, uztailaren 28koa, Turismoarena.
- 317/1996 DEKRETUA, abenduaren 24koa, turismo-erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak arautzen dituenak.

Honako arau hauek indarrean jarraituko dute, baldin eta etorkizuneko legean xedatutakoaren aurkakoak ez badira eta aldatzen ez badira edo erregulazio berriek ordeztzen ez badituzte:

- 102/2001 Dekretua, maiatzaren 24koa, hotel-establezimenduen antolamendua ezartzen duena, hotel-establezimenduen antolamendua ezartzen duen Dekretua aldatzen duen apirilaren 16ko 201/2013 Dekretuak aldatua; eta 6/2015 Dekretua,

urtarrilaren 27koa, hotel-establezimenduen antolamendua ezartzen duen Dekretua bigarrenenez aldatzen duena.

- 199/2013 Dekretua, apirilaren 16koa, landa-inguruneko turismo-ostatuko establezimenduak arautzen dituen.
- 198/2013 Dekretua, apirilaren 16koa, apartamentu turistikoak arautzen dituen.
- 200/2013 Dekretua, uztailaren 9koa, turismo-aterpetxeak arautzen dituen.
- 396/2013 Dekretua, uztailaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan kanpinak eta beste kan- paketa-turismoko modalitate batzuk arautzeari buruzkoa.
- 101/2018 Dekretua, uztailaren 3koa, erabilera turistikoko etxebizitzetara eta etxebizitza partikularretako logeiei buruzkoa.
- 112/2019 Dekretua, uztailaren 16koa, Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroari buruzkoa
- Agindua, 2024ko martxoaren 14koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, zeinak Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroari buruzko uztailaren 16ko 112/2019 Dekretua garatzen baitu, turismo aktiboko eta abentura-turismoko enpresei dagokienez.
- 26/2024 Dekretua, martxoaren 5ekoa, Turismo-gidarien Euskadiko Jarduerarena.
- Agindua, 2024ko uztailaren 3koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, Euskadin gaitutako turismo-gidariak egiaztatzeko bereizgarriaren eredu ofiziala onartzen duena.

Era berean, Turismoaren Lege berri bat onartzeko, erregelamendu bidezko garapen berri bat egin beharko da, arauak bere helburuak lortzeko estaldura operatibo egokia izan dezan.

2.- Arau-proiektuak generoaren ikuspegitik duen garrantziari buruz eginiko azterketa arrazoitua.

Aurretiaz uste da lege-aurreproiektuak modu positiboan eta esanguratsuan lagunduko duela emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean aurrera egiten turismoaren eremuan. Arauak zeharkako genero-ikuspegi bat eskaintzen du, zeinak bidea emango baitu ikuspegi hori turismo-politiken plangintzan, kudeaketan eta ebaluazioan txertatzen, eta, hala, lagunduko du emakumeen eta gizonen parte-hartze orekatua sustatzen, sektoreko eremu guztietan. Era berean, aurreproiektuak tresnak aurreikusten ditu, egiturazko desberdintasunak murrizten eragin dezaketenak, turismo-balioaren katean duten ikusgarritasuna indartuz.

Proiektatutako erregulazioak esperientzia turistikoaren segurtasuna, irisgarritasuna eta kalitatea hobetzen ere lagundu dezake genero-ikuspegitik, emakumeek eta gizonek zerbitzu turistikoaren erabilera eta jarduerari lotutako espazio publikoetan dituzten premia desberdinei erantzuten dieten irizpideak txertatuz. Era berean, arauak erraztasunak emango ditu egon daitezkeen arrakalak edo inaktuak identifikatzeko, sexuaren arabera bereizitako adierazleak barne hartzen dituzten informazio- eta ebaluazio-sistemen bidez, eta, horrela, politika publikoak bideratu ahal izango dira desberdintasunak zuzentzera eta sektore turistiko inklusiboagoa eta bidezkoagoa sustatzera.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 3. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako arrazoi hauengatik uste da lege-aurreproiektuak modu positiboan eta esanguratsuan lagunduko duela turismoaren eremuan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean aurrera egiten, genero-ikuspegitik:

- **Tratu-berdintasuna:** Proiektatutako arauak bermatuko du diskriminazio-egoerak eragin ditzaketen faktoreak dituzten emakumeek edo emakume-taldeek benetan baliatzen dituztela oinarritzko eskubideak. Horretarako, zeharkako genero-ikuspegi bat txertatuko da, ikuspegi hori turismo-politiken plangintzan, kudeaketan eta ebaluazioan txertatzeko aukera emango duena, eta sektoreko eremu guztietan emakumeen eta gizonen parte-hartze orekatua sustatuko du.
- **Aukera-berdintasuna:** Aukera-berdintasuna ezarri behar da, alde batetik, boterea, baliabideak eta onurak eskuratzeko abiapuntu edo hasierako baldintzetan, eta, bestetik, haiek guztiak baliatzeko eta behar den moduan kontrolatzeko baldintzetan. Hala, lege-aurreproiektuak erraztu egingo du egon daitezkeen arrakalak edo inpaktuak identifikatzea, sexuaren arabera bereizitako adierazleak barne hartzen dituzten informazio- eta ebaluazio-sistemen bidez. Horri esker, politika publikoak desberdintasunak zuzentzera eta sektore turistiko inklusiboagoa eta bidezkoagoa sustatzera bideratu ahal izango dira.
- **Aniztasunarekiko eta diferentziarekiko errespetua:** 2024-2028 Gobernu Programak, XIII. Legegintzaldikoak, 105. konpromiso programatikoan ezartzen du Euskadi bikaintasunezko helmuga turistiko segurua, jasangarria eta berdintasunarekin konprometitua izan dadila lortzea. Hala, konpromiso horren lehenengo ekimena da Euskadi berdintasun- eta inklusio-helmuga gisa eta aniztasuna errespetatzen duen helmuga gisa finkatzea, bai eta turismo-jardueretan gizonen eta emakumeen berdintasunarekiko errespetua sustatzea ere, women friendly (emakumeentzat lagunkoia) helmuga gisa hartzea indartuko duten neurriak bultzatuz. Konpromiso programatiko horrekin bat etorritz, Euskadiko Turismoaren Lege-aurreproiektuak hori lortzeko neurriak jasoko ditu.
- **Genero-ikuspegia txertatzea:** Era honetara ulertu behar da genero-ikuspegia txertatzea: emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrian desberdinak sistematikoki kontuan izatea eta, horretarako, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horiek planifikatzeko, gauzatzeko eta ebaluatzeko fase guztietan, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduketara zehatzak gehitzea.
Proiektatutako arauak bermatu egingo du diskriminazio-egoerak eragin ditzaketen faktoreak dituzten emakumeek edo emakume-taldeek benetan baliatzen dituztela oinarritzko eskubideak, zeharkako genero-ikuspegia txertatuz, ikuspegi hori turismo-politiken plangintzan, kudeaketan eta ebaluazioan sartu ahal izateko.
- **Ekintza positiboa:** Lege-aurreproiektuak neurriak hartuko ditu turismoaren eremuan sexuagatik gertatzen diren egitatezko desberdintasunak ezabatzeko edo murrizteko, lehen aipatutako 105. Konpromiso Programatikoaren seigarren ekimenean adierazten den bezala. Konpromiso horrek enpleguaren egonkortasuna sustatzen du, bai eta berdintasun-planak ere, lanbide-ibilbide osoan zehar kalitatezko enplegu egonkorak eta ingurune erakargarriak sortzeko.
- **Sexuaren arabeko rolak eta estereotipoak desagerraraztea:** Euskal botere publikoek sustatu behar dute sexuaren arabeko rol sozialak eta estereotipoak desagerraraztea, emakumeen eta gizonen arteko desparekotasunaren oinarri baitira. Baita ere, enpleguaren arloan gertatzen den segregazio horizontalari aurre egiteko, lanen balorazio desberdinari helduko diote.

Arauk zeharkako genero-ikuspegi bat eskaintzen du, zeinak bidea emango baitu ikuspegi hori turismo-politiken plangintzan, kudeaketan eta ebaluazioan txertatzen, eta, hala, lagunduko du emakumeen eta gizonen parte-hartze orekatua sustatzen, sektoreko eremu guztietan. Era berean, aurreproiektuak tresnak aurreikusten ditu, egiturazko desberdintasunak murrizten eragin dezaketenak, turismo-balioaren katean duten ikusgarritasuna indartuz.

- **Koordinazioa eta elkarlana.** Araua proposatu duen organoak bete egiten du araua egiteko prozeduran emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan egiten dituen jarduerak koordinatzeko eta lankidetzan aritzeko betebeharra, esku-hartze eraginkorrakoak eta baliabideen erabilera arrazionalarekin bat datozenak egin ahal izan daitezen.
- **Emakumeen ahalduntzea.** Emakumeen ahalduntzea da emakumeek emakume izateagatik jasaten duten desberdinkeria- eta diskriminazio-egoera estrukturalaz jabetzeko egiten duten prozesua, banaka zein kolektiboki, bai eta beren bizitzetako buruzko erabaki estrategikoak hartzeko eta bizitzaren zenbait alderditan generoan oinarritutako desberdinkeria eta diskriminazioa sendotzen eta iraunarazten duten egiturak eta erakundeak eraldatzeko aukera emango dieten eskumena, boterea eta kontrola eskuratzeko prozesua ere.
Arauk balizko arrakalak edo inpaktuak identifikatzen lagunduko du, sexuaren arabera bereizitako adierazleak barne hartzen dituzten informazio- eta ebaluazio-sistemen bidez. Horri esker, politika publikoak desberdintasunak zuzentzera eta turismo-sektore inklusiboagoa eta bidezkoagoa sustatzera bideratu ahal izango dira.
- **Gizonen inplikazioa.** Aurreproiektuaren xede den Legea indarrean sartzeak ez dakar zuzenean gizonen kontzientziazioa, erantzukizuna, parte-hartzea eta inplikazioa, berdintasunaren aldekoa eta indarkeria matxistaren aurkakoa, eta ez dakar, ezta ere, berdintasunezkoak ez diren maskulinitateak zalantzan jartzea eta desagerraraztea ere. Baina aukera emango du Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak kudeatzen duen turismo-tasatik datozen funtsak Euskadiko turismo-jardueraren parte diren gizonen inplikaziora bideratzeko.
- **Parte-hartzea.** EAEko botere publikoek, politika publikoak garatzerakoan, talde feministen eta emakume taldeen, eragile sozialen eta, oro har, herritar guztien partaidetza eta elkarriketa bultzatu behar dute; hala, beste partaidetza-eredu bat faboratuko da, demokratikoagoa, taldeen ekarpenei legezkoatasun handiagoa emango diena eta haien ekarpenek benetako eragina izatea erraztuko duena.
Organo izapidegileak ez daki pertsona feministen elkarteak daudela turismoari dagokionez, baina araua egiteko prozedurak herritarrei, oro har, aukera emango die araua egiteko une desberdinetan parte hartzeko.

Adierazitakoaren arabera, ulertu behar da Euskadiko Turismoaren Lege-aurreproiektuak beteko dituela EAEko botere publikoek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan duten jarduketara gidatu eta bideratu behar duten printzipio orokorrak.